

Hamarka saltsa

Lehiarako, taldea

BERTSOLARITZA

Bi urteko zikloari hutsik egin gabe, gaur hasiko da 2018ko Arabako Bertso Kuadrillartekoa. Martxoaren 17an Gasteizko Landatxo kiroldegian egingo den finalera bidean, taldea izango du ardatz aurtengoak, beste behin ere.

Ardatza mantendu egingo da, bai, baina adiskide zahar bat berreskuratuko du aurten, azkeneko ekitaldiarekiko berrikuntza gisa,

kuadrillartekoak: lehia. Txapelketa izango da aurtengoa, parte hartuko duten taldeek hala erabakita. 14 dira lehiatuko diren taldeak, eta 4 ligatan hasiko dute beren ibilbidea. Liga bakoitzeko irabazleek (lau taldek) eta puntuazioaren arabera atzetik geratu diren lehenengo biek osatuko dituzte finalurrekoak (6 talde, beraz). Landatxoko finalera 3 talde iritsiko dira, eta

bertan ezagutuko ditugu aurtengo txapeldunak.


Txapelketaren egitura baino, agian deigarriagoa da taldeen beraien egitura. Ez dira bertsolariz bakarrik osatzen: taldean daude epaileak, gai-jartzailleak, musikariak, sukaldariak... Bertsogintza ez baita kantuan aritzea bakarrik: mugimendu oso bat du atzean. Eta horren erakusleihozehatzena da kuadrillartekoa.



ARANTXA SOBRINO LASA
OION

"Kuadrillartekoa bizipoza da. Bertsoaren inguruan gozatu. Bertso berriak sortu eta zaharrak berritu. Mahaiaren bueltan elkartu. Bertso-ale berriak plazaratu.

Aurten ere kuadrillartekoa lagunartekoa izan dadila. Ongi etorri errimak eta doinuak, baita potoak ere; besarkadak eta barreak. Hori da kuadrillartekoak Arabako Errioxari dakarkiguna: bizipoza."



XABI IGOA ERIZ
ARAMAIO

"Kuadrillartekoa indarberritze bat dela esango nuke. Gurean, zorionez, bertso eskola nahiko osasuntsu dago: ume eta gazteen taldeak ditugu, helduen bertso eskola astero biltzen da eta nolabait herrian eragiteko gaitasuna badugu. Kuadrillartekoa baina, hauspo bat da lan horretan, eta batez ere eragiterako orduan; taldea osatzen, idatzizko taldea sortzerakoan... herrian aztarna bat utziko duela esango nuke."



MARIA FUENTES RODRIGUEZ
LEGUTIO

"Kuadrillartekoa aitzakia eta aukera dira beti: berriz bildu eta kantatzeko, herriko jendea bertotara hurbildu eta astintzeko, oholtzaren oinarriak apurtu eta publikoarekin berriak eraikitzeko. Ariketa edo esperientzia hau bertsozale berriak ezagutzeko aitzakia, eta bertsoen mundua uste duguna baino zabalagoa dela ohartzeko aukera besterik ez dira, eta horrela bizi nahi ditut."

'Won

ZINEMA

Atsekabe etsipen dugu Won berriena. Ondoren izenburuarekin erraldoia, nori gabe aurrera egingo da; baina aurrera egin ahal dugunean behar besterik ez dugu

Zaila egin zaikeen astiro egiten diren madarikatuak, dizkigulako pe desberdinen nahiabardurak, harrigarri gaitzen, ulertu Kostata, erritiko duelako zintak Teknikoki oso plano eta kamudagokienean, teatralizatuak irekiak baliatu askotan. Argia modu berezian eta plano landuzehatz batzuer indartu eta iral osatuagoak erbestetan, aldiz etengabean pe jarraituko dituz daramala, modu filmatuz.

Tennessee Wizu zuzendariaren dakar gogora, dramatismoa koloreek, berri Won Kar-Wai gogora.